



Parlamento de Navarra
Nafarroako Parlamentua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak 2020ko urtarrilaren 15ean txosten bat egin du foru parlamentarien 2020. urterako ordainsariei buruz.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15., 17. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, foru parlamentarien ordainsariek ehuneko 2ko behin-behineko igoera izanen dutela 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, sektore publikoaren zerbitzuko langileei buruzko estatu-legediak aurreikusten duenari jarraikiz.

2. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 60.337,14 eurokoa izanen dela 2020. urterako.

3. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 53.631,52 eurokoa izanen dela 2020. urterako.

4. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 45.252,62 eurokoa izanen dela 2020. urterako.

5. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 40.223,68 eurokoa izanen dela 2020. urterako.

6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

LEHENDAKARIA



Unai Hualde Iglesias



Parlamento de Navarra
Nafarroako Parlamentua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak emandako txostena, 2020ko urtarrilaren 15ekoa, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak behin-behineko igoera izanen dutela, ehuneko 2koa, 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.

2. Onestea foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke 2020an jasoko dituzten ordainsariak. Haien modalitateak eta zenbatekoak hauek dira:

– 146,30 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, helbidea Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentarientzat.

– 173,00 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, helbidea Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentarientzat.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

LEHENDAKARIA



Unai Hualde Iglesias



Parlamento de Navarra
Nafarroako Parlamentua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2020ko urtarrilaren 15ean, proposatu du bidaia ofizialengatiko ordainsariak ehuneko 2 igotzea behin-behinekoz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Onestea, 2020rako, foru parlamentarien bidaia ofizialengatiko eta Legebiltzarreko langileek lanaren kariaz egiten dituztenengatiko ordainsarien araubidea. Haien zenbatekoak hauek dira:

– Nafarroatik kanpora eginiko bidaia ofizialengatiko ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 51,00 €/egun.

– Atzerrira eginiko bidaia ofizialengatiko ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 81,60 €/egun.

– Lokomozio-gastuengatiko ordainsariak: 0,32 €/km.

2. Maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 8. artikuluan xedatutakoarekin bat, honako hauek dira karga-salbuespena duten zenbatekoen mugak 2020rako: – Mantenu-gastuengatik: 53,34 euro egun bakoitzeko, Espainiako lurraldearen barneko joan-etorriak direnean; eta 91,35 euro egun bakoitzeko, atzerrira eginiko bidaiak direnean. – Lokomozio-gastuengatik: 0,32 euro kilometroko, gehi justifikaturiko bidesari- eta aparkaleku-gastuak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

LEHENDAKARIA



Unai Hualde Iglesias